

Disoluzioak: kalkulua

1. **1,2 M den sodio kloruroaren disoluzio litro bati, 5 gramo sodio kloruro gehitzen zaizkio (disoluzioaren bolumena aldatzen ez dela suposatuz). Kalkulatu lortu den disoluzio berriaren kontzentrazioa (mol/L-tan eta g/L-tan). DATUAK: masa atomikoak Na=23, Cl=35.**
2. **0,5 M den sodio hidroxidoaren 100 mL dauzkagu eta 100 mL ur gehitzen dizkiogu, disoluzioa diluituz. Kalkulatu disoluzio berriaren kontzentrazioa (mol/L-tan eta g/L-tan) DATUAK: masa atomikoak Na=23, O=16, H=1.**
3. **Sodio klorurotan 3,2 M diren 50 mL disoluzio beste 1,8 M diren 80 mL disoluzioarekin nahasten dira. Kalkulatu lortzen den disoluzioaren molaritatea**
4. **Kalkulatu zein izango den %80ko azido sulfurikoaren disoluzioaren masa, %50eko disoluzioaren 750 g prestatu ahal izateko**
5. **Potasio nitratotan 0,86 M diren 25 mL, 500 mL-raino diluitzen dira. Kalkulatu lorturiko disoluzioaren molaritatea**
6. **Adierazi nola prestatu masan %20koa den sodio kloruroaren 400 g-ko disoluzio bat, baldin %32ko disoluzio batetik abiatzen bagara.**
7. **Kalkulatu zenbat gramo sodio hidroxido solido bota behar zaion 200 mL sodio hidroxidoaren 1,2 M disoluzio bati, 65 g/L-ko disoluzioa lortzeko. Suposatu bolumena ez dela aldatzen.**

Masa atomikoak: Na=23; O=16; H=1

8. **Sodio hidroxidoaren bi disoluzio nahasten dira: 50 mL 2M eta 150 mL %25 (d=1,02 g/mL). Kalkulatu nahasketaren kontzentrazioa g/L-tan**

Masa atomikoak: Na=23; O=16; H=1